


# TOPONIMOAK KARTOGRAFIAN TXERTATZEKO IRIZPIDEAK<sup>1</sup>

Ruben Ramirez  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)



Gai hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan (HPS) lantzen hasi ginenean, lehenengo ideiak dokumentu batean bildu genituen, eta pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela arlo honetan diharduten beste zenbait erakunderekin kontrastatzea: orduan, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordera jo genuen, bai eta Lurralde Antolamendu Sailera ere. Helburua zen dokumentu bateratua lortzea, eta beraz, bi erakunde horietatik jasotako ekarpenekin osatu genuen gurea.

Nolanahi ere, irizpide hauek ez dira huts-hutsean aplikatzekoak, kasu kasuko salbuespenak aztertu behar baitira; salbuespen horiek ere bildu ditugu labur-labur, bai eta toponimo guztietarako aplikagarriak diren jarraibide orokorrak ere.

Azkenik, azpimarratu beharra dago txosten honetan bildutako irizpideak eskala guztietan aplikatuko direla, 1:5.000ko kartografian izan ezik, eskala hori bereziki lanerako erabiltzen baita.

Dena den, dokumentu hau abiapuntua da, eta beraz irekia da; praktikara eramateaz batera hobetu eta aberastuko da.

Txosten honetan erabilitako terminoak eta arlo honetako beste zenbait argitzeko asmoz, glosario labur bat erantsi dugu bukaeran (ikus 1. eranskina).

## Sarrera

Zergatik erabaki dugu toponimiaren barruan atal hau lantzea?, zergatik finkatu ditugu irizpide batzuk leku-izenak mapetan txertatzeko? Hona hemen helburu nagusiak:

---

<sup>1</sup> Dokumentu hau irekia da eta, hortaz, hobetu eta aberastu daiteke aldaketak proposatuz edo iradokizunak eginez.

1. Kartografiako okerrak saihestea
2. Mapa ulergarri eta argiak sortzen laguntzea
3. Erabiltzaile guztientzako mapak izatea

- **Kartografiako okerrak saihestea:** Argi dago mapak funtsezko bidea direla toponimoak zabaltzeko; HPSn urteak daramatzagu mapak aztertzen, eta zeregin horretan konturatu gara kartografiak Euskal Autonomia Erkidegoan ezaugarri bereziak dituela: 2 hizkuntza ofizial ditugu eta, hala ere, hemen ez da mapa elebidunik argitaratzen, mapa gehien-gehienak elebakarrak dira.

**Mapa elebidunak nahasi samarrak izaten dira:** zailak irakurtzen, informazio gehiegi eskaintzen dute oso eremu txikian. Mapa elebakarrak, berriz, argiagoak dira, baina informazioa gaizki interpretatzeko arriskua dago; oso ohikoa da honelakoak ikustea:

euskarazko mapetan

*Upazagako atxa (Arratzu-Ubarrundia),*

*Ignazioren erlategia*

*Lanaren hiribidea*

Gaztelaniazko mapetan

\*Cima Upazagako

\*Abejal Ignazioren

\*Avenida de Lanaren

Hortaz, mapa elebakarretarako, toponimoen bertsio bakarra behar genuen, hau da *kartografian txertatzeko toponimoak* behar genituen.

Euskal toponimoa	Gaztelaniazko toponimoa	Kartografian txertatzeko toponimoa
Upazagako atxa	Cima Upazaga	<b>Upazaga</b>
Errekazuri	Arroyo Errekazuri	<b>Errekazuri</b>
Antxeta baserria	Caserío Antxeta	<b>Antxeta</b>

Beraz argi ikusten genuen hori zela bidea, bi hizkuntzetarako bertsio bakarra behar genuela, horrela lehen aipatutako beste bi helburuak beteko genituen:

- **Mapa ulergarri eta argiak:** informazio zuzena, zehatza eta argia, erraz interpretatzeko eta ulertzeko modukoa eskaintzen duten mapak.

- **Erabiltzaile guztientzako mapak:** guztiek, elebakarrek nahiz elebidunek, irakurtzeko moduko mapak izatea; betiere euskararen erabilerari lehentasuna emanda.

Hala ere, horrek beste arazo bat zekarren berekin: nola adierazi toponimo horien entitate geografikoa (gaina, iturria, erreka...), hau da, nola adierazi "Upazaga" zer den, edo erdaldun batentzat "Errekazuri" zer den.

Arazo hori ikusita, irizpide hauek lantzen hasi ginen mapetan toponimia argi eta txukun adierazteko, beti, edo ia beti, bertsio bakarra errotulatuta.

Irizpideak azaltzen hasi aurretik, gogoraraziko dut toponimo batek bi osagai dituela:

**Osagai espezifikoa:** oro har, toponimoaren izen propioa dela san daiteke. Osagai espezifikoa elementu bakar bat edo gehiago izan dezake. Adibidez:

- **Galburusoro baserria:** *Galburusoro* , osagai espezifikoa
- **Atibar Goikoa baserria:** *Atibar Goikoa* , osagai espezifikoa

**Osagai generikoa:** toponimoan entitate geografikoaren izaera adierazten du, modu orokorrean, adibidez:

- **Galburusoro baserria:** baserria, osagai generikoa.
- **Urtiaga erreka:** erreka, osagai generikoa

## Irizpideak

Irizpideok antolatzeke ardatza toponimo-motak izan dira, eta, alde horretatik, lau multzo bereizi behar dira: **toponimo puntualak, toponimo linealak, eremu zabaleko toponimoak eta biztanle-entitateak**

### **TOPONIMO PUNTUALAK**

Euren tamainagatik kartografian puntu baten bidez adierazten diren toponimoak dira; koordenada bi erabiliz (x, y) zehaztu daiteke euren kokalekua mapetan. Adibidez: gailurrak, elizak, ermitak, iturriak, baserriak, etxeak, errotak, aurrak, trikuharriak, mendateak.

✓ Espezifikoa generikorik gabe errotulatuko da ikur konbentzionalen ondoan, ahal den guztietan, adibidez:

*Gantzabala (tontorra)*  
*San Pedro (ermita)*  
*Magalarte (baserria)*

Halaber, maparen ondoan, legendan, erabilitako ikur guztien esanahia jasoko da.

Dena den, ikurren erabilera erlatibizatu egin behar da, bakarrik erabiliko baitira toponimoak adierazten duen entitate geografikoa eskalan ikusterik ez badago, hau da, 3 mm-tik beherako tamainan azaltzen bada.

Gainerako kasuetan, toponimo puntualak letra-motaren bidez (letra-tamaina, lodiera) adieraz daitezke, bai eta koloreak erabiliz ere (koloreak entitate geografikoaren arabera aldatzen dira: urdina hidrografian, siena orografian, berdea landareetan eta lur-erabileretan, eta beltza gainerakoetan).

**Generiko hutsak:** Toki-izen batzuek osagai generikoa baino ez daukate; futbol-zelaia, hilerria, kiroldegia, igeritokia, pilotalekua...horra hor zenbait adibide; horrelakoak ere ikur konbentzionalen bidez errotulatu dira.

Hala ere, izen berezirik baldin badute, hori ere jasoko da ikurraren ondoan, generikorik gabe:

*Ogeta (pilotalekua)*  
*Karela (kiroldegia)*

Zer gertatzen da toponimo erreferentziala duten toponimoekin? Toponimo erreferentzialak dira beste toponimo batetik eratortzen diren leku-izenak, jatorrizko toponimo horri erreferentzia eginez; horiek osorik adieraziko dira kartografian:

*Gasteizko mendatea*  
*Bizkaiko zubia*

## TOPONIMO LINEALAK

Hainbat puntu edo segmenturen segidaren bidez adierazten diren entitateak dira; elementu lineal nagusiak bi multzotan sailkatu daitezke: Komunikabideak eta hidrografiakoak.

### Komunikabideak

✓ Errepideak, autobideak eta autobiak: toponimo hauek dagozkien zenbaki eta letra ofizialen bidez adieraziko dira kartografian:

*A-68*  
*N-25*

Trenbideen kasuan toponimoen dagokien izen ofiziala ezarriko da, adibidez:

*Madrid-Irun.*

Batzuetan, errepideak moztu egiten dira maparen ertzean edo erkidego baten mugan; horrelakoetan errepide horren noranzkoa adieraziko da, adibidez:

*Madrilera  
Frantziara*

**Hidrografia:** ibaiak, errekek.

✓ Horrelakoetan osagai espezifikoa baino ez da erabiliko. Toponimo mota bakoitza bereizteko bi era hauek erabiliko dira: batetik, linealtasunagatik eta erabilitako kolore bereizgarriagatik nabarmenduko dira toponimo hauek, eta bestetik, toponimoaren garrantzia letra-motaren bidez bereiziko da:

*IBAIZABAL  
ZADORRA  
Arratia*

Dena den, hidrografiaren kasuan komeni da eskala aintzat hartzea; izan ere, eskala handietan (1:10.000tik gorakoak) aukera egon daiteke generikoa idazteko, ibaiak eta errekek normalean horretarako behar den lekua eskaintzen baitute kartografian.

Azkenik, generikoa espezifikoaren zati denean, ez da berriro errotulatuko, adibidez:

*IBAIZABAL / RÍO IBAIZABAL  
Errekatxiki / Arroyo Errekatxiki  
Río Mayor ibaia / Río Mayor*

#### **EREMU ZABALEKO TOPONIMOAK**

Kartografian poligono baten zabaleraren bidez adierazten diren toponimoak dira, adibidez

Mendilerroak, urtegiak, mendikateak, parke naturalak, lurraren zenbait erabilera eta bestelako leku zabalak.

✓ Osagai espezifikoa generikoarekin batera errotulatuko da ele bitan; eremu zabalak direla kontuan hartuta, ez dirudi horrela egiteko arazorik egongo denik, adibidez:

*Undurraga urtegia / Embalse Undurraga  
Aralar mendilerroa / Sierra de Aralar*

Gainera, kontuan izan behar da horrelako asko toponimo erreferentzialak direla, esaterako:

*Urrunagako urtegia / Embalse de Urrunaga*

Salbuespenak:

- Zehaztasun handirik ekartzen ez duten generikoak (aurkintzak, esaterako) ez dira errotulatuko. Adibidez:

*Larralde (eta ez Larralde aurkintza)*  
*Sarriondo (eta ez Sarriondo aurkintza)*

- Lur-erabilerek (nekazaritzako ustiategiak) izen espezifikoa dutenean bakarrik errotulatuko dira, generikorik gabe:

*Erramungoa (eta ez Erramungoa soloa)*  
*Lubarri (eta ez Lubarri basoa)*

- Araututako toponimoak generikoa lexikalizatua badu, generikoa ez da berriro errotulatuko, adibidez:

*Leitzaran (eta ez Leitzaran harana)*  
*Busturialdea (eta ez Busturialdea eskualdea)*

Horrelakoetan, erdarazko forma eranstean bada, generikoa ere errotulatu beharko da mapetan:

*Leitzaran / Valle de Leitzaran (ordena: eu/es)*  
*Busturialdea / Comarca de Busturialdea*

Oharra: eremu zabaleko toponimoak laburdura bidez errotulatzeko aukera ere aztertu beharra dago, adibidez: *Gorobel mler. / S<sup>a</sup> Sálvada* (ikus 2. eranskina). Hori ere irteera egokia izan daiteke, baina horretarako mapetan probak egin beharko lirateke eta emaitzak aztertu.

## BIZTANLE-ENTITATEAK

✓ Ofizialdutako izena erabiliko da kartografian, tokian tokiko erakundeek onartutako eran eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako moduan eta hurrenkeran:

*Arrasate / Mondragón*  
*Salvatierra/Agurain*  
*Errenteria*  
*Zigoitia*

Hala ere, ofizialak ez diren euskarazko izenak ere jasoko dira, Euskaltzaindiak onartutako moduan eta beste era batera adierazita (parentesi artean...), esate baterako:

*Ribera Alta (Erriberagoitia)*  
*Ollerías (Ollerieta)*

Entitate-motak (udalerriak, udalburuak, kontzejuak, auzoak...) bereizteko, letra-tipoa eta tamaina erabiliko dira:

*VITORIA-GASTEIZ*  
*Legazpi*  
*Miñao*

Biztanle-entitateak sailkatzeko, bi irizpide erabiliko ditugu: batetik, biztanle-kopurua, eta bestetik, udalburuen maila administratiboa.

Biztanle-kopuruari dagokionez, hainbat maila ezarrita daude kartografian eta bakoitzak letra-tamaina jakin bat dauka eskalaren arabera; udalburuak salbuespena izango dira, gutxieneko letra-tamaina bat izango baitute biztanle-kopuru txikia eduki arren.

## **OHAR OROKORRAK**

Bukatzeko, hona hemen toponimo guztietarako aplikagarriak diren zenbait jarraibide orokor:

✓ Toponimoa hizkuntza bietako batean, euskaraz nahiz gaztelaniaz, arautu bada, eta beste bertsioa ezagunagoa edo erabiliagoa bada, hori ere errotulatuko da bestearen ondoan, parentesi artean. Esate baterako:

*Sandoni (San Antolín)*  
*Zamudiotorre (Malpica)*

✓ Errotulatzeko hurrenkerari dagokionez, euskarari lehentasuna emango zaio (eu/es):

*Mandazaibidea / Camino de los Arrieros*

✓ Toponimoak homonimorik badu (izen bereko toponimoak), generikoa idatziko da, piktograma edo letra-tipoaren bidez bereizterik ez badago, adibidez:

*Oxinaga (erreka, auzoa eta baserria)*  
*Jangako zubia eta Janga (baserria)*

✓ Toponimo gutxi dagoen eremuetan (landa-eremuak) irizpidea izango da 3 edo 4 cm-ko esparruetan toponimo bat errotulatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 16a

## 1. eranskina

**Ahozko toponimoa:** tokian tokiko biztanleek erabili ohi dituzten leku-izenak, landa-lanaren inkestaren bidez jasotakoak. Adibidez: *Arrañeta errekea*.

**Entitate geografikoa:** izendatutako edo izenda daitekeen paisaiaren osagaia. Honelakoa izan daiteke: naturala, artifiziala, administratiboa... Adibidez: mendia, kalea, ibaia, plaza, tontorra...

Gehienetan, entitate geografikoa eta toponimoaren osagai generikoa berdinak izaten dira, adibidez:

- Araneko erreka:  
erreka, generikoa; erreka, entitate geografikoa

Baina badira salbuespenak, adibidez:

- Kurutze mendi, ahozko toponimoa:  
mendi, generikoa; tontorra, entitate geografikoa
- Gastaka errotea, ahozko toponimoa:  
errota, generikoa; baserria, entitate geografikoa

**Eremu zabaleko toponimoak:** kartografian poligono baten zabaleraren bidez adierazten diren entitateak, adibidez: soroak, mendi-lerroak, urtegiak...

**Euskal toponimoa:** euskarazko etimologia duen toponimoa edo euskarak erabat bereganatua duena; batzuetan jatorria beste hizkuntza batean izan dezake. Adibidez: Iturrigorri, Mollaberri.

**Normalizazio geografikoa:** toponimia kartografian txertatzeko prozesua; horretarako, irizpide grafiko eta geografiko bateratuak ezartzen dira, toponimoei koordenatuak aplikatuz eta errotulatzeko era zehaztuz.

**Normalizazio linguistikoa:** behin zenbait hizkuntza-arau edo irizpide finkatuta, horiek toponimoei aplikatzea; arau eta irizpideok sortzeko, landa-lanetik eskuratutako materiala aztertu eta dokumentu ugarirekin alderatu eta egiaztatu egiten da, betiere hizkuntzaren bilakaeraren funtsezko arauak oinarri hartuta. Era horretan, leku-izenek hizkuntzaren ikuspuntutik sortarazten dituzten arazoei irtenbidea ematen zaie eta, beraz, toponimo normalizatuak edo arautuak sortzen dira.

**Osagai espezifikoa:** toponimoa zehatz-mehatz izendatzen duen osagaia. Oro har, toponimoaren izen propioa dela esan daiteke. Osagai espezifikoak osagai bakar bat edo gehiago izan dezake. Adibidez:

- *Galburusoro* baserria: Galburusoro , osagai espezifikoa
- *Atibar Goikoa* baserria: Atibar Goikoa , osagai espezifikoa

**Osagai generikoa:** toponimoan entitate geografikoaren izaera, modu orokorrean, adierazten duen osagaia. Adibidez:

- Galburusoro baserria: baserria, osagai generikoa
- Atibar Goikoa baserria: baserria, osagai generikoa

**Toponimo erreferentzialak:** lekuen arteko hierarkiaren ondorioz sortzen diren toponimoak dira; hierarkia hori ez da nahitaez bat etorriko entitate geografikoaren zabalerarekin. Esate baterako, ermita (toponimo puntuala) baten izena zabaldu egin daiteke eta inguruko erreka bati (toponimo lineala) izena eman eta baita ermita inguruari ere (eremu zabaleko toponimoa). Adibidez:

Top. nagusia: *San Martín ermita*

Top. erreferentzialak: *San Martín erreka* eta *Sanmartinaldea* (aurkintza)

**Toponimo normalizatuak:** toponimo dokumentatuak eta ahozkoak aztertu eta normalizazio arauak aplikatu ondoren finkatzen diren toponimo arautuen multzoa. Adibidez: *Billao, Errotatxu, Etxandarri*.

**Toponimo linealak:** hainbat puntu edo segmenturen segidaren bidez mugatzen diren entitateak dira; elementu lineal nagusiak sare hidrografikoa, bideak, errepideak eta trenbideak dira.

**Toponimo puntualak:** euren tamainagatik puntu baten bidez adierazten diren entitateak; koordenada bi erabiliz (x, y) zehaztu daiteke euren kokalekua mapetan. Hona hemen zenbait adibide: iturriak, gailurrak, baserriak, errotak, mendateak, elizak...